



2003/03/7ko prentsa-oharra

JAIOTZEN ESTATISTIKA (JAIE)2001 urtea

2001 URTEAN 17.647 JAIOTZA ERREGISTRATU ZIREN, AURREKO URTEAN BAINO %1,9 GEHIAGO

Araban bakarrik gutxitu ziren jaiotzak.

EUSTATen datuen arabera, 2001. urtean, Euskal AEn 17.647 jaiotza izan ziren, hots, 2000n baino %1,9 gehiago. Gipuzkoan gertatu zen gehikuntzarik handiena, %2,7koa izan baitzen; ondoren, Bizkaian %2,5ekoa eta Araban, berriz, %2,1eko jaitsiera izan zen.

Jaiotza-kopurua mila biztanleko 8,5ekoa izan zen, Europar Batasuneko baxuenetakoa. Zifrarik handiena Gipuzkoakoa (‰9,2) izan zen, ondoren Arabakoa (‰8,5) eta gero Bizkaikoa (‰8,1).

1976an hasitako jaiotzen beheranzko joera nabarmena moteldu egin zen 1980ko hamarkadaren bukaera aldetik aurrera, eta mailarik baxuenera 1994an heldu zen. 2001eko zifretan, aurrera jarraitzen du 1995ean hasi eta 1998 ahuldutako goranzko joera txikiak.

2001 urtean seme-alabaren bat izan zuten emakumeen %74k hogeita hamar urte edo gehiago zituen. Talderik ugariena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien %46,1 eman baitu. Beste alde batetik, 2000. urtearekin erkatuta, handitu egin da 35 urtetik gora izanda ama izan direnen taldea, oraingoan ere handiagoa baita 25 eta 29 urte bitartekoena baino.

Hazken hamar urtean, urritu egin dira ama izan direnen 30 urtetik beherako adin talde guztiak. Hartara, 20 urtetik behera ama izan direnen ehunekoa erdira jaitsi da, eta 20 eta 24 urte bitartekoak 6 puntu urritu dira, %4,2 izateraino. Beherakada are handiagoa da (16 puntu) 25 eta 29 urte bitartekoen taldean; eta 2001. urtean, ama izan zirenen %20,7 izan ziren. Aitzitik, bikoitzera baino gehiagora gehitu da 35 edo urte gehiagorekin ama izan direnen taldea.

Jaiotza-ordenaren arabera, 2001. urtean lehen seme-alabak %57 baino gehiago izan ziren jada (aurreko urtekoaren antzeko ehunekoa). Hirugarren eta ondorengo seme-alabak, ordea, %5,9 besterik ez ziren izan.

2001. urtean, guraso ezkongabeak zituztela jaiotakoak 2.875 izan ziren. Bestela esanda, halakoak izan ziren jaiotzen %16,3, 2000n (%15,2) baino gehixeago.

Erditzeak 17.405 izan ziren: horietatik 17.111, bakunak; 277, bikoitzak; 15, hirukoitzak eta 2 lauukoitzak.

Jaiotakoen artean, 100 gízalabako 108 gízasemerena izan zen sexuen erlazioa. Batez beste, 3.289 gramoko pisua izan zuten gízasemek; eta gízalabek, 3.170 gramokoa.

1. taula: Euskal AEn bizirik jaioak, amaren bizilekua den Lurralde Historikoaren arabera.

	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	17.647	2.436	9.040	6.171
Gizonezkoak	9.161	1.231	4.722	3.208
Emakumezkoak	8.486	1.205	4.318	2.963
Jaiotza-ordena				
Lehenengoa	10.185	1.374	5.418	3.393
Bigarrena	6.419	915	3.119	2.385
Hirugarrena edo gehiago	1.043	147	503	393
Amaren adinaren arabera				
< 25 urte	930	149	539	242
25 - 29 urte	3.661	512	1.713	1.436
30 - 34 urte	8.137	1.119	4.125	2.893
35 - 39 urte	4.391	582	2.366	1.443
>= 40 urte	528	74	297	157
Amaren egoera zibilaren arabera				
Ezkondua	14.772	2.037	7.550	5.185
Ezkongabea	2.875	399	1.490	986

Iturria: EUSTAT.

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.:+34-945 017 500 Faxa:+34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández Tel.:+34-945 01 75 49 Faxa:+34-945 01 75 01 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

